

TXOSTENA

BILBOKO ALKATEARI

Bilboko Udalaren hizkuntza-politikaren oinarria eta erreferentzia-esparrua Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da (ESEP). Plan hori Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) diseinatu eta koordinatzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietan dago ezarrita.

Bilboko Udalaren kasuan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana-ESEP 2022ko abendura arte luzatzea onartu zuen Gobernu Batzordeak, 2019ko uztailaren 10ean.

Bilboko gizarte-bizitzan eragin handia duten erakunde eta pertsonekin lankidetzan aritzea da Planaren ardatzetako bat, bai eta hirian euskararen erabilera normalizatzearen alde lan egiten dutenekin ere, hiztunen hizkuntza-errealitatea gizarte-jarduera orokorraren barruan ulertuta.

Horregatik guztiagatik, 2016ko otsailaren 10ean, Bilboko Euskararen Aholku Batzordea sortzea onartu zuen Gobernu Batzordeak. Batzorde horren osaera eta eginkizunak Udaltzateak 2017ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran onartutako funtzionamendu-erregelamenduan daude adierazita, eta 2017ko abenduaren 18an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik aurrera daude indarrean.

Batzorde horretan ESEP plan estrategikoaren irizpideak eta lehentasunak aurkeztu, eztabaidatu eta proposatzen dira, baita urteko kudeaketa-planak ere, dagokion udal-organoari proposatzeko, onar ditzan. Azken batean, Aholku Batzordea beharrezko tresna da ESEPen garapenean, Bilbo definitzen duten indar eta dinamika nagusien topagunea den aldetik.

Ondorioz, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 175. artikulua eta Bilboko Udaleko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Erregelamendu Organikoaren 49. artikulua kontuan hartuta, honakoa da egiten den

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- Bilboko Euskararen Aholku Batzordeko kide berrien izendapena onartzea; foro hori, Bilbon euskararen normalizazioan inplikaturik dauden erakunde, organismo eta pertsonen osatua da. Batzordeak izaera aholku-emailea du Euskara Sustatzeko Ekintza Planari dagokionez (ESEP).

BIGARRENA.- Honakoak izango dira batzordekideak:

Batzordeburua: JUAN MARIA ABURTO RIKE, Bilboko alkatea

Batzordeburu-ordea: KOLDO NARBAIZA OLASKOAGA, Euskara eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkarria

Kideak:

- **GONZALO OLABARRIA VILLOTA**, Kulturako zinegotzi ordezkaria
- **MARTA AJURIA ARRIBAS**, Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzi ordezkaria
- **XABIER OTXANDIANO MARTÍNEZ** Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia

- Udal talde politikoetako ordezkari bana,
 - EAJ-PNV: **ALAITZ ORIBE TORRONTEGI**
 - PSE-EE (PSOE): **NORA ABETE GARCÍA**
 - EH-BILDU: **ASIER GONZALEZ SOREASU**
 - ELKARREKIN PODEMOS: **ANA VIÑALS BLANCO**
 - PP: **JESÚS SANZ SALAMANCA**

- **JONE UNZUETA CRESPO**, Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria
- **XABIER ARAUZO URIARTE**, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria
- **ANDRES URRUTIA BADIOLA**, Euskaltzaindiako ordezkaria
- **JOKIN GOROZIKA BIDAURRATZAGA**, Labayru Fundazioko ordezkaria
- **JON MAGUREGI OLABARRIA**, Bilboko euskaltegietako ordezkaria
- **JON SIMON GARTZIA LEGARRETA**, Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Saileko ordezkaria
- **OLATZ ELGEA LOPEZ CANO**, Bilbao Dendak elkarteko ordezkaria
- **IKER GOÑI ANTUÑANO**, Athletic Clubeko ordezkaria
- **AINARA ARETXABALETA TORRONTEGI**, Uztarri Kultur Elkarteko ordezkaria
- **JAVIER LARRAÑAGA JUARISTI**, Zenbat Gara elkarteko ordezkaria
- **LUTXO EGIA DEL RIO**, Idazlea eta kultura sustatzailea
- **GOIZALDE LANDABASO ETCHEVERRY**, kazetaria

Idazkaria: MARI JOSE ARRIETA SAGARNA, Bilboko Udaleko Euskarako zuzendariordea.

HIRUGARRENA.- 2023ko agintaldiaren amaiera artekoa izango da izendapen honen iraupena.

Bilbao, 2019ko azaroaren 15ean.


ADMINISTRAZIO OROKORREKO
TEKNIKARIA

Iratxe Enderika del Villar



EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILEKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Koldo Narbaiza Olaskoaga



Ebazten du proposatzen den moduan,

BILBOKO ALKATEA

Juan Mari Aburto



GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARITZARI
LAGUNTZEKO ORGANOAREN JARDUNEKO
TITULARRA

T.A.G. Oficina Junta Gobierno
Gobernu Batzordearen A.O.T.
P.D./E.B.